

Izadi Zaleak mendi elkarreak mendi martxaren antolaketa parte hartu du. Argazkian, uda aurretik egin zuten azken irteeran. IZADI ZALEAK

Auzo-lanari esker 'Aizkorrin barrena' mendi martxarako guztia prest dago

Legazpi » Urriaren 12an egingo den 'Aizkorrin barrena' ibilaldia Legazpi 400 urtez aske dinamikaren barruan dago.

ALEX AREIZAGA


Legazpiko herria urte osoan zehar ospatzen ari den mendeurrenaren barruan *Aizkorrin barrena* Euskal Herri mailako mendi martxa izango da urriaren 12an. Ibilaldia hainbat elkarteren eta herritarren arteko auzo-lanean antolatu dute; besteak beste Izadi Zaleak mendi elkarrea, Burdinola elkarrea, Arriurdin auzo-elkarrea eta legazpiko Gaztetxea ibili dira.

Mendi martxarekin helburu batzuk lortu nahi dituzte antolatzaileek: mendi-ibilbidea sustatzea, Legazpi inguruko natura eta ondare aberatsa ezagutaraztea, Aizkorrin Parke Naturalerako sarrera ofiziala Legazpirako aldarrikatzea, edota herritarren arteko auzo-lana bultzatzea, esaterako.


Bi ibilbide

Mendi martxak bi ibilbide izango ditu, aukeran: luzea eta motza. Lehenak 31 kilometro izango ditu eta goizeko 07:00etatik 07:30era bitartean abiatuko dira ibiltariak. Ibilbidean Brinkola, Oazurtza, Aizkorrondo eta Artzanburuzabaleko inguruneak igaroko dituzte martxan doazenek. Antolatzaileek jakitera eman dutenez Zumarragatik tren berezi bat irtengo da Brinkolara 06:30ean, eta 06:35ean Legazpin geldituko da.

Ibilbide motzak 16 kilometro izango ditu, eta hori ere Brinkolatik irten eta leku berean amaituko



Martxa luzearen albo-irudia. 31 kilometroko ibilbidea da. IZADI ZALEAK



Martxa motza, 16 kilometrokoa. IZADI ZALEAK

da. 08:00etatik 09:00etara bitartean abiatuko dira; bai hasieran eta bai bukaeran ibilbide luzearekin bat egingo du. Hemen ere partehartzaileei ibilaldiaren hasierara joateko tren erabiltzeko deia egin diete antolatzaileek.

Izen-ematea

Ibilbide batean nahiz bestean antzinako bideak erabiliko dira martxarako: Arabako bidea, Biozkornako bidea, legazpiarrak Arantzazura joateko erromes bidea edota Aizkorrondoko mandabidea, bes-

teak beste. Historiaz betetako bideak, inondik ere. Ibilaldian zehar Legazpiren inguruneari eta historiari buruz azalpenak ere emango dituzte.

Martxan parte hartu nahi duenak kiroldegian, Urbeltz tabernan, gaztetxean eta Izadi Zaleak elkarrean eman behar du izena, azken horretan astearte edo ostegunetan 19:00etatik 20:30era. Aldez aurretik 10 euroko kostua du izen-emateak, eta 12 eurokoa egunean bertan. Interneten ere (www.izadi-zaleak.com) eman daiteke izena.

Gazte urretxuar batek salatu du ertzainek «jipoitu» dutela atxilotze unean

Urretxu » Astelehenean Ordizian geldiarazi, kolpatu eta atxilotu egin zuten; gaur epaiketa izango du.

ERREDAKZIOA

Gaur goizean urretxuar gazte bat epaituko dute Tolosako auzitegian, «autoritateari atentatua» egitearen akusaziopean. Astelehenean 04:30ean Ordiziako saihesbidean ertzainek gaztea geldiarazi, kolpatu eta atxilotu egin zutela salatu du. Bi orduz egon zen atxilotuta, eta Beasango anbulatoriora ere eraman zuten kolpeak ikusteko. 06:30 aldera utzi zuten aske.

«Autoritateari atentatua» egin izana leporatuta epaiketa gaur 12:00etan izango da Tolosako epaitegian. 11:30ean prentsa agerraldia egingo dute epaitegi parean gertatutakoa azaldu eta gazteari elkartasuna adierazteko asmoz. Deitzaileek herritarrei babes ematera agertzeko eskatu diete.

Hiru epaiketa aste berean

Gaurkoa ez da, hala ere, gazte horrek egunotan duen epaiketa bakarra. Ostegunean bigarren epaiketa du; eta hilaren 30ean hirugarrena, puzker bat bota eta «autoritateari atentatua» egin izana leporatuta. Goierriko AHT Geldituk salatu du AHTren aurkako mobilizazioetan parte hartzen duten kideak Ordizian obrak hasi zirenetik ertzainaren aldetik «jazarpena» jasaten ari direla.

Zenbakia

31

■ **Kilometro.** 'Aizkorrin barrena' martxako ibilbide luzeak 31 kilometro ditu, motzak 16 kilometro. Brinkolan egongo dira irteera eta helmuga. Arratsaldean erromeria ere izango da bertan.

EUSKAL HERRIA

NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA

Eskura ezazu berriekin

IRAILAK 27 LEHENA DOAN!

berria

KARPETA OPARI

6 liburuki

Itsasertza, Basoak eta ibarrak, Labarrak eta haitzarteak, Tontor nagusiak, Ibaiek eta ur-jauziak eta Euskal Herriko Atlasak

berria

GOIERRIkoa

KURXA